

III. Eranskina (Oñatiko Inauteriak)

*Idatzi honetan Oñatiko Inauterietako arropen zerrenda ageri da pertsonaienarekin batera. Lehenbizi Dantzari eta Musikarien informazioa agertzen da eta zer diren eta zein arropa janzten duten agertzen da berau arrazoituz. Ondoren, pertsonaia guztiak deskribatzen ditu testuak eta bakoitzaren arropa zerrendatzen du. Honez gain, pertsonaiaren inguruko informazioa ere ematen digu.

ARROPAK ETA PERTSONAIAK



JANTZIAK

Dantzariak

Jantziak ifñauterietan errepikatzen diren arketipoetan oinarrituta sortu ziren.

- Txapel beltza, atzekaldean zinta berdeak dituena eta goikaldean artilez egindako bi ponpoi ditu.
- Aurpegia estaltzeko "gasa" zuri zikindu bat.
- Koloretako pontxo bat.
- Tunika zuri zikindua
- Gerrian lotuta soka eta zintzarri edo arranak
- Alkondara txuria
- Fraka txuriak
- Makila eramateko poltsa, bizkarrean daramana.
- Saku telaz egindako polainak. Hauek koloretako zinta, artilezko ponpoi eta zintzarriekin osatzen dira.

Jantzi hauen diseinua egin zenean, oinarri txuria duen jantziaren aldeko apustua egin zen eta gainetik kontrastea egiteko kolore biziak dituen koloretako pontxo bat ezarri zitzaien.

Genero berdintasunean oinarritutako jantziak dira.

Identitate ezkutatzeko saiakera ezberdinak egin ziren arren, gaur egun aurpegia estaltzeko gasa bat erabiltzen da.

Polainak, azpiko oinetakoak estaltzea eta estetikoki uniformetasuna lortzea dute helburu.

Jantziak gertatzerako orduan, etxeko ohialak berrerabiltzea aholkatu izan da beti.

Adb: Tunika txuria egiteko maindire zahar bat, pontxoa egiteko etxeko ohial, manta edo beste-lakoak, polainak egiteko sakuen tela erabili eta erraz etxean egiteko patrioiak sortu ziren.

Tresnak

- 25 zm luzeko eta 1.5 zm diametroa duen makila (erraz basoan aurkitu daitekeena) eramaten du dantzari bakoitzak. Makila gordetzeko poltsa zuri bat eramaten du eskegita sorbaldan.
- Kapitainen kasuan, kanpotik kolorezko ohialez egindako puxika berezi batzuk erabiltzen dira. Puxika hauekin gainontzeko dantzari taldeari egin beharrekoen berri ematen dute kapitainek.



Musikariak

Musikariak herriko musikariak dira, propio iñauteri egunez jotzeko elkartzen dena. Bertako kide asko garai bateko Oñatiko trikitxarangako kideak dira. Dantzariak bezalaxe, edonork du aukera musikari moduan ateratzeko.

Jantziak iñauterietan errepikatzen diren arketipoetan oinarrituta sortu ziren.

- Txapel beltza, goikaldean artilez egindako bi ponpoi dituen
- Alkondara txuria.
- Kolore biziak eta estanpatuak dituen txalekoa.
- Barruko aldetik kolore bizi eta estanpatuak dituen kapa beltz bat
- Fraka beltzak
- Artilezko galtzerdiak
- Gomazko abarkak.

Musikarien kasuan jantzia serioagoa da. Kolore beltza darama baina era berean kontrastea egiteko kolore biziekin konbinatzen da jantzia.

Aurpegia estali gabe eramaten dute, musika irakurtzeko aproposagoa zela erabaki zelako. Tresnak

-Musika instrumentuak: Bonboa, platoak, danborra, txistua, trikitixa, panderoa, tronpetak, saxofoiak....



PERTSONAIAK

Musika eta dantzarietz gain presentzia nabarmena dute pertsonaiek ere. Aurretik aipatu den bezala, Oñatiko Iñauteriak sortu aurretik ateratzen ziren pertsonaiez gain berriak sortu ziren.

Hiru motatako pertsonaiak ditu Oñatiko Iñauteriak

1. Aurrez egiten ziren Iñauterietan erabiltzen zirenak.
2. Oñatiko historiaren inguruan sortutakoak
3. Garai bateko herriko ofizio zahar eta nabarmenak irudikatzen dituztenak.
4. Naturarekin eta uzta berritzearekin zerikusi duten natura elementu
5. Osagarriak

1. Aurrez egiten ziren Iñauterietan erabiltzen zirenak.

-HARTZA

Europako Iñauterietan eta neguko festetan ageri den izaki basati honek garrantzia handia du iñauterietan. Ele zaharrak dioen moduan Kandelaria egunez, Otsailaren 2an, ateratzen da Hartza bere lozorrotik.

Hartza lo egoten da negu osoan. Eta Udaberrian esnatzen da, udaberriaren etorreraren seinalea da.

Hartza inauteri inguruan esnatzen da. Ez da kasualitatea; inauteriek neguaren bukaerarekin zerikusia dute. Udaberria oraindik hasi gabe egoten den arren, ordurako elurte gogorrenak pasata izaten dira eta horren adierazle herri askotako iñauterietako parte izaten da pertsonaia.

Hortaz gain, hartzak gizakiarentzat izan duen garrantzia nabarmena da eta ez bakarrik iñauterietan, herri askotako armarrietan eta beste hainbat ikurretan ere agertzen baita.

Jantziak

-Ile iluna duen aurpegiko maskara.

-Ile iluna duen jantzia

-sokak



HARTZAREN ZAINZALEA

Hartzak hibernatu ondoren leizetik ateratzen denean goseak ateratzen da eta hara eta mugimendu jarraian ibiltzen da. Bere joan-etorriak kontrolatzeko zaintzailea izaten du alboan uneoro.

Jantziak

- Txapel beltza
- Alkondara txuria
- Txaleko beltza
- Maoizko frakak



SENAR EMAZTEAK

Ezkondutako senar-emazte bikotea herri inauteri agerraldien zati bat izaten zen. Ugalkortasunaren adierazle dira. Neguaren lozorrotik natura esnatzen den bezala, giza naturarekin ere, gauza bera gertatzen delako jaso genituen oñatiko inauterietako pertsonai bezala. Hau da, agorraldiarekin amaitu eta erreprodukzioari lekua utziz.

Jantziak

Senarra

- Alkondara txuria
- Korbata
- Traje iluna
- Oinetako ilunak

Emaztea

- Beharrezko kasuetan ile-ordea.
- Soineko txuria
- Oinetako txuriak
- Lore sorta



GAUZAINA

Herri eta hirietan kalez kale gaueko zaintza egiten zuen zaintzailea da. Antzinako lanbidea da, egun guztiz galdurik dagoena. Argiak piztu eta itzali eta atea ireki eta ixtea zituen eainbide. Jantziak

- Txapel beltza
- Kapa mahoi kolorekoa
- Jertse gorria/granatea
- Mahoizko frakak
- Oinetako ilunak

Tresnak

- Farola
- Giltza joko handi bat



MIKELETEA

Garai batean Aldundiaren ardurapeko miliziako kideak(polizia taldea) izan ziren eta haien funtzioa herri-bakea mantentzea eta gaizkileen jazarpena ziren.

Mikeleteak landa eremua zaintzen arduratzen zirei

Jantziak

- Apaingarria daraman txapel gorria
- Kapa urdina
- Fraka gorriak
- Larruzko gerriko beltza
- Oinetako ilunak Tresnak
- Borra bat



OBISPOA ETA MONAGILOA

Botere erlijiosoaren adierazle. Oñatiko soziologia bitxia zen. Azpimarragarria zen noble eta elizgizonen kopurua. Egoera horren ondorioz, monastegi, jauregi eta komentu asko eraiki ziren. Errealitate horren lekukoak dira bi pertsonai hauek.

OBISPOA

Jantziak

- Osagarri gorriak dituen urre koloreko mitra/kapela
- Urre koloreko apaingarriak dituen tunika gorria
- Eskularru zuriak
- Oinetakoak

Tresna

- Bara bat



MONAGILUA

Jantziak

- Apaingarri gorriak dituen kapela beltz bat
- Tunika gorri eta zuri bat
- Oinetakoak

Tresnak

- Hautsak eramateko kutxa



ALKATE EDO ALKATESA ETA HAREN BIKOTEA

Herritarrek aukeratutako lurralde edo herri ordezkaria. Oñatiren kasuan herritarrek aukeratzen bazuten ere, azken onarpena Kondeak ematen zuen.

Jantziak (Alkatesa)

- Norberak etxean dituen erropa dotoreak

Jantziak (Alkatea)

- Kapela beltza
- Kapa baltza

Tresnak

- Zumea eskuan



2. Oñatiko historiaren inguruan sortutakoak

KONDE ETA KONDESA

Oñati 1845. urte arte, gebaratar leinuaren menpe egon zen. Lehenbizi jaurerri izan zen, ondoren konderri eta 1845ean batu zitzaion Gipuzkoari.

Herriko eskumenak haien menpe izan ziren luzaroan eta horrek herriaren nortasuna baldintzatu zuenez, garrantzitsuak dira gure historia ulertu ahal izateko.

Oñatiko Iñauterian, herrian urte askoan izan duten nagusitasun eta harrokeriaren erakusle dira baina egunaren amaieran herritarrak dira kondeak menpean hartzen dituztenak eta herritik kanporatzen dituztenak.

Karro edo kotxe bat dute eta bertan joaten dira aldizka. Jantziak:

KONDEA

- Kapela beltza
- Ile-ordea
- Maskara
- Alkondara zuria paparreko estalkiaz
- Granate koloreko zapia lepoan
- Hori koloreko txalekoa
- Txaketa beltza
- Millaraiazko fraka ilunak
- Oinetako ilunak
- Eskularru zuriak



KONDESA

- Moño itxurako ile-ordea
- Maskara
- Alkondara zuria
- Beroki granatea
- Beige koloreko gona
- Oinetako ilunak
- Eskuan, berokiaren ohial berdinez egindako poltsa



BORREROAK

Borreroak Oñatiko konde eta kondesaren babesle bezala sortu genituen. Kontutan izan behar da Oñatiko Kondea urkamendia zeukala eta horretan jardungo zuenik ere izango zuen bera-
rentzat lanean.

Garai hartan, borreroen edo urkatzaileen lana zen; justizia publikoak jartzen zituen sententzia biolentoak betetzea. Hori horrela, konde eta kondesaren inguruan borrero talde bat ibiltzen da puxika eskuetan dutela. Beraz, borreroak arduratzen dira, konde eta kondesa babestu eta haien espazioa markatzen.

Jantziak

- Kaputxa beltza
- Zakuzko soinenkoa
- Malla beltzak
- Polainak
- Soka gerrian



PREGOILARIA

Herrian jasotako gertakari eta deialdien berri ematen zuen pertsona. Soinu baten bidez abisua eman (adarra jo) eta esan beharrekoak irakurtzen hasten da. Ozen eta argi. Gure iñauterian ezinbesteko pertsonaia da. Bere funtzioen artean, iñauterien presentzia adieraztea, istoriako narratzaile lanak egitea, toki bakoitzean egingo diren dantzen berri ematea da.

Jantziak

- Lumak dituen kapela marroia
- Beige koloreko alkondara
- Kapa marroia
- Jantziaren antzeko koloreak dituen txalekoa
- Gerriko horia
- Praka bonbatso marroiak
- Media urdinak
- Takoidun zapata marroiak



Tresnak

- Adarra
- Eguneko gidoia eramateko mikrofonoa



3. Garai bateko herriko ofiziozahar eta nabarmenak irudikatzen dituztenak

TXOKOLATERUAK

Oñati herri txokolateroa izan da eta herriaren historian garrantzia handia izan duena. 1636. urtera garamatza Oñatiko txokolatearen inguruko lehen aipamenak.

Beraz, XVII. menderako Oñatin ordezkartza ona zuela esan genezake kakaoaren landaketak eta salerosketak; bai txokolateraren elaborazioan eta kontsumoan ere.

Oñatiko txokolate-kontsumo handia justifikatzeko, agian, garai hartan txokolatea sendagai ona zela esaten zen. Eskorbutua, biriketako tisia eta edozein sukar mota sendatzen zituela esaten zen. Txokolatearen erabilera honetan, XVI. mendean garrantzia handia izan zuen Oñatirentzat, bertako "Sancti Spiritus" unibertsitateak.

Txokolatea berehala finkatu zen Oñatiko aristokrazian. Ondo ikusia zegoen edari exotiko, bizkorgarri eta perfumatu hura edatea; obsesioa zen zalantzarik gabe.

Halere, XVIII. mendera arte ez zen txokolategileen gremioa eratu, hau da, txokolatearen manufaktura ordura arte, botikario, drogero eta gozogileen Elkargoaren esku zegoen.

XIX eta XX. mendeetan behin betiko aritsautzatik ekoizpen industrialerako aldaketa gauzatu zen. Industrializazioarekin 10 lantegi edo txokolate enpresa izateraino heldu zen:

- Gereka txokolateak
- Pantaleon Madina Txurruka
- Garaikoetxea
- Jose Mari Arrazola
- Oena
- Maiztegi
- Martin Orbea
- Loiola txokolateak
- Zahor
- Martin Leturia

Guzti honengatik, Oñatiko herrian txokolateak izan zuen eraginagatik, erabaki zen; Iñauteriarren barruan ere presentzia izan behar zuela eta txokolateroen pertsonaia sortzea erabaki zen.

Hori dela eta, iñauteri egunaren aurretik txokolategi lantegiak kokatuta zeuden tokietan, enpresa bakoitzeko errotulazioarekin, saku-telaz egindako identifikagarriak jartzen dira herriko txoko ezberdinak iñauteritarako girotzeko.




Iñauterietan txokolateroek, ikusle eta partehartzaileei txokolatea eskaintzen dizkiete eta nagusiki publikoa zirikatzea eta txokolatez zikintzea da hauen zeregin nagusia. Hortaz gain, txokolateroek izaera markatzeko ibilkera berezia bat gehitu zaie pertsonaiei.

Gainera, estetikoki ere haien itxura eta janzkerak “ikara” edo konfiantza eza transmitzen dute.

Jantziak

- Zapi zurixa buruan
- Maskara gorria
- Alkondara txuria
- Aurreko amantala beigea
- Mahoizko frakak Tresnak
- Marmitak
- Txokolatea
- Kutxarak...
- Kakao sakuak



ERREMENTARIXAK

Iñauteritarako sortutako beste pertsonai bat da. Herrian ofizio honek ere presentzia nabarmena izan zuelako batu ziren iñauteritako pertsonaietara.

Historiari dagokionez, Euskal Herrian, Erdi Aroan dagoeneko oso zabaldua zegoen burdintza, ustialekuetan lehengai ugari izateaz gain, baso ugari ere baitzegoen, eta horri esker burdina eraldatzeko adina erregai baitzegoen. Testuinguru horretan agertu ziren errementari edo errementaixak: ez ziren oso espezializatuak eta era guztietako erremintak egiten zituzten, betiere oso kopuru txikietan eta eskualdean bertan saltzeko.

XV. mendeaz geroztik burdinak garrantzia handia hartzen du eta industri garatzen joan zen. Mota askotako elementuak eraldatzen ziren, besteak beste erremintak, iltzeak, ferrak, burdin-hesiak eta arma zuriak. Oñati forjaketa gune garrantzitsua izatera iritsi zen, eta bertan sutegi edo artisau-lantegi ugari zegoen kokatuta, teilapeetan eta etxazpietan bai herrian bertan baita herri kanpoaldean ere, hain zuzen ere Olabarrieta eta Zubilaga auzoetan. Usadioak bere horretan jarraitu zuen. Izan ere, bi mende geroago, Oñatin 70 sutegi zeuden, bakoitzean maisu bat, hainbat ofizial eta ikastun baten bat aritzen zen jardunean, inoiz ez 6 pertsona baino gehiago sutegi bakoitzeko.

Oinarrizko instalazioa harearriz egindako sutegi bat zen: metro eta metro eta erdi bitarteko zabalera eta beste horrenbesteko luzera zuen, eta 70 zentimetroko altuera izaten zuen. Bertan, egur-ikatzez sua pizten zen. Konbustioa areagotzeko, metro bat eta bi metro arteko hauspo batekin haizea ematen zitzaion. Hauspo hori egurrezko oholez eta larruz eginda zegoen, eta gehienetan eskuz eragiten zitzaion sutegi ondoan sabaitik zintzilik zegoen palankatik tira eginda. Lantegiko erdialdean ingude bat egoten zen zuhaitz enbor handi baten gainean finkatuta. Horren ondoan harrizko ontzi bat egoten zen, urez beteta, tresnak amaitzerakoan han sartu eta hozteko. Horrez gain, lan-mahaia eta piezak lantzeko tresnak izaten zituzten: besteak beste era guztietako kurrikak, mazoak, mailuak eta bestelakoak.

XVI. eta XIX. mendeetan artean, ekoizpen-sistemak ez ziren ia aldatu: sutegiek metaluzko hainbat produktu eta tresnak egiteko ekoizpen guneak izaten jarraitzen zuten, sutegiak erreminta eta produktu bakoitza egiteko garatzen eta egokitzen joan arren.

artisau-usadio handia zegoenez XX. mende hasiera arte piezak eta erremintak betiko sutegietan egiten ziren. Ondoren, gaur egungo forja-lantegiak sortu ziren. Lantegi horiek erreminta, pieza eta tresna txikiak egiteko ekoizpen-guneak ziren, eta Euskal Herrian eta Oñatin lau mende baino gehiagoan zabaldua egon ziren usadiozko sutegiak ordeztu zituzten.



Jantziak

- Txapela beltza
- Zaku telaz egindako maskarak.
- Norberak lortu mahoizko fraka eta alkondara
- Aurreko amantala eta besotako manguituak behi larruzkoak (erosita, zikinketia falta)
- Oinetakuak Tresnak
- Zartaginak
- Ultziak
- Auspoak
- Mailuak
- Ferrak....

Antzerkia edo rola

- Jendea xaxatu eta hara eta hona ihili



NATURA BIZIA

Aintzinako euskaldunak, herri primitibo guztiak bezala, naturarekin orekan bizi ziren, eta natura osotasunean gurtzen zuten. Ama lurak garrantzia handia du bizitzaren zikloetan. (sortu-bizi-hil).

Hortaz gain iñauteri garaian zilko aldaketa eta uzta berri edo aro on baten izateko konjuroak egin izan ditu gizakiak.

Horregatik, konjuro horren ondorioz eta Iñauteriak naturarekin duen harreman zuzenaren adierazle dira pertsonaia hauek.

Mozorro hauen resentzia hutsak jendearen ikara eragiten du eta agerraldi laburrak egiteko sortua da eta mundu zibilizatu eta mundu basatiaren arteko irudikapena egiten dute.

Jantziak

- Naturaz apaindutako lastozko gorroa
- Antifaz beltza
- Jantzi berrerabili ilunak, frakak, txaketa, txaleko, alkondara
- Belaunera bitarteko galtza txuriak
- Gomazko abarkak Tresnak
- Sardeak
- Naturaz apaindutako makilak (erratzak...)
- Zintzarriak gerrian
- Odola



UMEA ETA ZAINZAILEA

Pertsonai hau natura elementu moduan sailkatua dago. Iñauteriak ez direlako bakarrik natur ugalkortasunaren aurrean egiten den konjuro eta errituen adierazle. Hortaz gain, giza ugalkortasunak ere badu bere leku eta zentzua (jaio-bizi-hil).


Irudikapen hori egiten du haurrak eta bere zaintzaileak

UMEA

- Kapela berdea
- Jertse gorria
- Lauki berde-urdinez osatutako soinekoa eta barrenean puntilla duena
- Galtzerdi txuriak
- Oinetako ilunak Tresnak (umea)
- Panpina
- Txupatxusa
- Bere eramateko kotxe haundia

ZAINZAILEA

- Ile orde iluna
- Gona eta jaka trajea, beltz kolorekoa
- Galtzak
- Oinetakoak



LAIXARIXAK

Garai batean baserrietan lurrak goldatzeko erabiltzen ziren laiak eta natura elementuen baitan sortutako pertsonaien multzoen sailkatzen da. Errenkada batean kokatzen ziren eta guztiak batera eragin eta lurrari buelta ematen zioten, uzta berrirako lurra prestatzeko.

Behin laiarekin mugitutako lur eremua arrearen bidez zatitzen zen eta hurrengorako prest uzten zen.

Oñatiko Iñauterian “Laixariak”, laia itxurako bi hankapaloren gainean joaten dira eta konpartsa-
ren hasieran joaten dira erraldoien inguruan.

Hankapaloen bidez ikusgarritasuna lortzen dute eta handitasun horrek nolabaiteko errespetua ere sortzen du.

Jantziak

- Lastozko txapela
- Aurpegia estalita
- Kuadrohun alkondara
- Mahoizko frakak
- Abarkak Tresnak
- Laixak (hankapaluak)



5.Osagarriak

TRAPEROAK

+Musika taldeari laguntzea da pertsonai hauen rola. Ez dira konpartsako parte-hartzaile zuzenak. Audioaren arazoari irtenbidea emateko herriko festa ospakizun batzuetan egiten den bezala laguntzaile rola dute.

+Iñauteri askotan haurrek izaten duten rola modu honetan irudikatu izaten da eta erreferentzia hori erabili da.

Jantziak

- Lastozko txapela koloretako telekin apaindua
- Identitatea estaltzeko oihala aurpegian
- Koloretako telekin apaindutako pontxoak

Tresnak

- Mikrofonoak



ERRALDOI DANTZARIAK

Konpartsaren hasieran joaten da erraldoien bikotea.

Erreleboa emateko beste bi kide joaten dira alboetan "dantzari" bezala jantzita.

Jantziak:

- Txapel beltza, atzekaldean zinta berdeak dituena eta goikaldean artilez egindako bi ponpoi ditu.
- Alkondara txuria
- Fraka txuriak
- Zaku telaz egindako polainak. Hauek koloretako zinta, artilezko ponpoi eta zintzarriekin osatzen dira.

